

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

4116

EBAZPENA, 2025eko irailaren 4koa, Hizkuntza Politikako sailburuordearena eta Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2025eko uztailearen 28ko ebazpena, hartara zinpeko itzultzaile- nahiz interprete-lanetarako gaikuntza lortzeko probetarako deialdiaren oinarrietako epaimahaiaren osaera aldatzeko.

2025eko uztailearen 28ko, Hizkuntza Politikako sailburuordearen eta Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren ebazpenaren bidez zinpeko itzultzaile- nahiz interprete-lanetarako gaikuntza lortzeko probetarako deialdia egin zen. Deialdiaren oinarrietako 10.1 puntuan, epaimahaiaren osaera zehazten da, apirilaren 21eko 88/2009 Dekretuak, zinpeko itzultzaile eta interpreteen habilitazioari buruzkoak, hala aginduta 4. eta 5. artikuluetan.

Deialdiaren oinarrietako 10.1 e) atalean bi ordezkari izendatu dira, Itziar Otegi Aranburu (titularra) eta Iñaki Frieria Urbistondo (ordezkoa), Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearen (EIZIE) proposamenez, lege, administrazio edo ekonomia arloetako itzulpengintza edo interpretaioaren adituak direnak. Izendatutako ordezkariak aldatzeko beharra sortu da.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUGU:

Artikulua bakarra.– Leire Ibarra Garcia (titularra) eta Idoia Gillenea Mujika (ordezkoa) izendatzea Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearen (EIZIE) proposamenez, zinpeko itzultzaile- nahiz interprete-lanetarako gaikuntza lortzeko probetarako epaimahaia osatzeko.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen eta bere aurka gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren aurrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 4a.

Hizkuntza Politikako sailburuordea,
AITOR ALDASORO ITURBE.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendaria,
LEIRE CORRALES GOTI.